



QTLeap proiektuaren azken mugarrak itzulpen automatikoko teknologia berritzailea aurkeztu du, semantika lexikoko esanahi eta erlazio sare konplexuak itzulpen prozesuan sartuta.

QTLeap - Quality Translation by Deep Language Engineering Approaches Europako Batzordeak finantzatutako lankidetzako proiektua da, honako zortzi partaide hauek osatutako partzuergo batek aurrera eramaten duena: Adimen Artifizialerako Ikerketa Zentro Alemanak, Berlineko Humboldt Unibertsitateak, Bulgariako Zientzien Akademiak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Groningeneko Unibertsitateak, Lisboako Unibertsitateak, Pragako Charles Unibertsitateak eta Higher Functions enpresa portugesak.

QTLeap proiektuaren helburua Itzulpen Automatikorako (IA) soluzio berriak aztertzen dituen metodologia berritzaile bat ikertzea eta garatzea da, ingeniari linguistiko sakoneko hurbilpenak erabiliz kalitate handiagoko itzulpenak lortzeko.

2015eko azaroan, proiektuak “lexikoki lotua eta ebatzia” deitutako barne-mugarri bat lortu zuen. Partzuergoak garatu berri duen bigarren itzulpen sistema multzoak informazio lexiko-semantikoa du gehigarri proiektuko hizkuntza guztietan: alemaniera, bulgariara, euskara, gaztelania, ingelesa, nederlandera, portugesa eta txekiera.

Aspaldi argudiatu izan da Wikipedia bezalako web gune handietako baliabideen eta antzeko baliabide egituratuagoen (“datu estekatuak”) informazio semantikoak itzulpen automatikoan lagunduko zuela. Bada, orain, frogatu dute informazio mota honek kalitatean ondorio onuragarriak dituela.

QTLeap proiektuko ikerketa erabiltzaileei bideratutako hurbilpen berri baten ildotik burutzen da. Garatutako itzulpen sistemen helburua informatikari buruzko arreta zerbitzu erreale baten testuinguruan erantzun koherenteagoak eta zehatzagoak ematean datza. Horretarako, itzulpen sistema hauek kontzeptuak eta testuaren koherentzia bermatzen dituzte, hitzen adiera (“esanahia”) eta sinonimo multzoak kontutan hartuz, eta korreferentzia kateak erabiliz. Sistema berrien ebaluazioek hobekuntza erakutsi dute aurreko prototipoekiko. Emaitzotan, gainera, azken itzultzaile sistema multzoa prestatzeko balio handiko ideiak aurkitu dira.

Orain arteko ikerketaren emaitzek erakusten dute lortutako itzulpen automatikoko teknologia berriari esker dei-zentroko giza esku-hartzea murriztu egin dela era esanguratsuan eta, beraz, denbora eta mantentze-lanen kostua optimizatu egin dela.

Informazio zabalagoa lortzeko eta harremanetarako, bisitatu:

Web gunea: <http://qt leap.eu/>

Facebook: <https://www.facebook.com/qt leap>

Twitter: <https://twitter.com/QT Leap>

Linkedin: https://www.linkedin.com/company/qt leap-project?trk=EML_cp-admin



QTLeap proiektuak diru-laguntza jaso du Europar Batasuneko Zazpigarren Esparru Programatik, ikerketarako, teknologiaren garapenerako eta erakusketarako 610516 zenbakidun laguntza-akordioaren barruan.